

## **ENERGIAREN KLUSTERRA**

### **Sozietatearen izena**

Asociación de Promoción e Investigación "Cluster de Energía"

### **IFK**

G48888895

### **Izaera**

Elkartea.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Gutxi gorabeherakoa.

### **Sorrera**

1996ko azaroaren 21ean eratu zen entitatea, sustapen eta ikerketako elkarte gisa eta 1997ko martxoaren 10ean inskribatu zen Elkartearen Erregistroan, [1997ko apirilaren 15eko ERABAKIAN, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak Elkartearen Erroldan joan den martxoan egin diren sarrerek eta oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoen bezala.

### **Sail-atxikipena**

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

### **EJSN**

8299 Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jarduera batzuk.

### **Fundazioaren xedea eta helburua**

Elkartearen helburu nagusia da elkarteko bazkide diren enpresen lehiakortasuna hobetzea, energiaren alorreko teknologien, konpetentzien eta merkatuen inguruko jardueretan lankidetzaz bultzatuta. Helburuei jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten jarduerak gehienak.

### **Sailkapena kontabilitate nazionalen**

Sozietate ez-finantzarioak.

### **Sozietatearen Funtsa**

444.474 €

### **Bazkideak**

Hasieran Sozietatearen Funtsik gabe eratu zen entitatea. Orain daukan Sozietatearen Funtsa bazkideen ekarpenekin osatuz joan da, sortu izan diren defizitekin murriztuz eta lortutako superabitekin emendatuz, elkartea sortu zenetik.

Energiaren klusterrak [80 bazkidetik gora](#) ditu, eta ohorezko bazkide da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo saila. Bazkide fundatzaileetako bat Energiaren Euskal Erakundea da.

Bazkideen Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, bazkideen borondatea adierazteko organoa da, eta gainera elkartearen gobernu eta administrazioko organo gorena.

### **2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak**

Aktiboa guztira	698.143 €
Ondare garbia	433.342 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	2,5

### **Sozietatearen helbidea**

San Bizente, 8, Albia I eraikina, 2., 48001 Bilbo (Bizkaia).

### **Webgunea**

[www.clusterenergia.com](http://www.clusterenergia.com)